



ASTEAZKENA

2023/05/31
11. urtea, 1.796. zenbakia
107.6 fm
Ataria.eus
URTEKO HARPIDETZA KUOTA: 90 €



Imanol Rojo iraupen eskiatzaile tolosarrak hiru aldiz hartu du parte Olinpiar Jokoetan. I.T.

«Oraindik hobetzeko aukera dudan ez dut argi ikusi aurten»

IMANOL ROJO IRAUPEN ESKIATZAILEA

Zapore gazi-gozoa utzi dio aurtengo denboraldiak, baina, datorren urtean ere eskiatzen jarraitu nahi du; bitartean, lasterketetan ari da parte hartzen, «fisikoa neurtzeko» // 6

Euskal preso en aldeko Lasterbidean ekimena, larunbatean

Amasa-Villabonan izango da, eta proba luzea eta motza izango ditu; bezperan eta egunean bertan hamaika ekitaldi izango dira // 5

«Pandemian idazten hasitako testuekin sortu da proiektua»

SHARABANI ARANZABE ANTOLATZAILEA

‘Naturaren Doinuak’ ekimena izango da ekainaren 11n Alkizan, musika, literatura, dantza eta gastronomia batuz // 3

Abraham Olano zikloturista martxa, igande honetan

Usabal kiroldegitik abiatuta, 90 eta 133 kilometroko ibilbideak izango dira aukeran // 7



ANOETA – LEKU EDER
3 EDO 4 LOGELA - GARAJE ITXIAK
TERRAZA PAREGABEAK HEGOALDERA

CONSTRUCCIONES ABURUZA, S.L.

Informazioa:
KALE BERRIA 48, BEHEA
20.150 VILLABONA

www.aburuza.com
komertziala@aburuza.com
943 69 02 97/607 445 484

Ekainaren 17an hartuko dituzte aginte makilak

Udal hauteskundeak pasata, gobernu berriak osatu eta datozen lau urteetara begira jartzeko garaia da; Tolosaldean boto gehien jaso dituzten hautagaiak izango dira alkate

Erredakzioa

Hauteskundeen biharamunean udal gobernuak nola osatu izaten da herritarrengan eta politikariengan sortu ohi den zalantza nagusia. Hala ere, Tolosaldeko herrietan ez dago akordioetarako tarterik, eta boto gehien jaso dituzten hautagaiak izango dira alkate. Ekainaren 17a da udal hauteskundeen ondoren egingo den lehen geldialdia, aginte makilak hartzeko eguna izango baita hori. Eskualdeko 14 herritan alkate berriei hartuko dute kargua.

Badira errepikatuko dutenak ere; hamabitan bigarren legealdia izango dute eta bitan, Abaltzisketa eta Asteasu, laugarren legealdia izango dute. Eta bada beste berezitasun bat, Aiztondoko herri guztietan emakumeak izango baitira alkate; Adunan



Ekainaren 17an izango dira aginte makilak hartzeko ekitaldiak. I.U.A.

Kristina Rodriguez, Amasa-Villabonan Beatriz Unzué, Asteasun Pili Legarra, Larraulen Maite Arana eta Zizurkilén Maite Amenabar.

Orokorrean baina, gizonezko gehiago izango dira alkatetzan,

emakumezkoak baino; 28 alkate-etatik 10 izango dira emakumezkoak, Adunan, Alegian, Amasa-Villabonan, Asteasun, Elduainen, Gaztelun, Ikaztegietan, Larraulen, Orexan eta Zizurkilén.

ALKATEAK

Laugarren legealdia

Ion Zubizarreta, Abaltzisketa. Herri-gintza.

Pili Legarra, Asteasu. Asteasu Batuz.

Bigarren legealdia

Iñaki Orbegozo, Albiztur. Albiztur Bizirik.

Inaki Irazabalbeitia, Alkiza. Alkizako Abertzale Ezkertiarrak.

Beatriz Unzué, Amasa-Villabona. EH Bildu.

Iñaki Telleria, Belauntza. Denok Bat. 2019an Silvia Moneo izan zen zerrendaburu eta alkate, baina 2021eko azaroan Telleriak hartu zuen kargua.

Oihana Amundarain, Elduain. EH Bildu.

Igor Zapirain, Ibarra. EH Bildu.

Gorka Murua, Irura. EH Bildu.

Maite Arana, Larraul. PSE-EE.

Joxe Ramon Eizaguirre, Leaburu-Txarama. EH Bildu.

Iñaki Azpiroz, Lizartza. EH Bildu.

Migel Angel Arsuaga, Orendain. EH Bildu.

Gurutze Etxezabal, Oresa. EH Bildu. 2019an Eneko Maio izan zen zerren-

daburu eta alkate. Etxezabalek pasa den maiatzean hartu zuen kargua.

Alkate berriak

Kristina Rodríguez, Aduna. EH Bildu. **Regina Sorarrain, Alegia.**

Alegia Aurrera.

Xabier Olano, Altzo. EH Bildu.

Mikel Arteaga, Amezketa. EH Bildu. Aurreko legealdian alkateorde izan zen.

Egoitz Luiza, Anoeta. EH Bildu.

Ugaitz Garmendia, Balarraín. Auzo-lanean Bizirik.

Andoni Zurriarrain, Berastegi. EH Bildu. Aurreko legealdian alkateorde.

Aitzol Izquierdo, Berrobi. Berrobi Bizi. **Joan Inazio Zinkunegi, Bidania-Goiatz.** Ibiri.

Eider Olazar, Gaztelu. EH Bildu.

Luis Arana, Hernialde. Herniope.

Alba Garmendia, Ikaztegietia. EH Bildu.

Andu Martínez de Rituerto, Tolosa. EH Bildu.

Maite Amenabar, Zizurkil. EH Bildu. Azken bi legealdietan alkateorde izan zen.

ZUZENKETA

Astehenean argitaratutako udal hauteskundeetako egunkarian hainbat akats zeuden:

- Anoetari lotutako albistean, EH Bildutik zinegotzi karguan errepikatzen zuen bakarra Amaia Urkola zela argitaratu zen, baina Aitzol Esnaolak eta Mikel Olanok ere zinegotzi bezala errepikatu egingo dute.
- Batzar nagusien emaitzekin osatutako taulan abstentzioaren batez bestekoa 38,3 puntukoa zela argitaratu zen; ez da zuzena 39,24 puntukoa izan zen.
- Bidania-Goiatz lotutako albistean Ibiri plataformak lau zinegotzi eta Garai Berriak-ek hiru lortu zituztela argitaratu zen; ez da zuzena, Ibiri plataformak 5 zinegotzi izango baititu eta Garai Berriak plataformak 2.

Analisia

Ander Leon Nanclares

Historialaria eta irakaslea

Larraul sozialista II

Larraulen, Kanan bezala, mirariak suertatzen dira. Galileako herrian, ezkontza baten ospakizunean ura ardo bihurtu zuen nazaretar batek, Gipuzkoakoan boto abertzaleak sozialista konstituzionalista bihurtu zituen bizkaitar batek. Nola da posible hori? Hau da mirari baten kontakizuna.

Larrauldar gehienak ez dira pisuetan bizi, hau da, jabeen komunitateak eta horiek sortarazten dituzten bilerak, liskarrak eta ezinegonak ez dituzte ezagutzen eta beraz gehienek ez dute inoiz finka-administratzaile profesional baten beharra izan. Edo agian bai.

Duela lau urte, 2019an, aurreko udal hauteskundeetan, Larraulen ezin izan zen herri ze-

rrendarik osatu eta hauteskunde egunean PSE-EE izan zen aukeraren zegoen lista bakarra. 17 botoekin 7 zinegotziak lortuta, sozialistek herria kudeatzeari ekin zioten. 250 biztanle inguruko herria da Larraul, auzokide komunitate batzuk baino txikiago seguru, eta Arana andrea udala gobernatzen hasi zen, kanpotik, herritarrek kontratatutako finka-administratzailea balitz bezala. Arazoak ekiditea izaten da horrelako profesional bat kontratatzeko arrazoi nagusia, ez egotea pendiente, ez izatea beldur ardurar noiz tokatuko zaidan edo zer egingo duen denok ezagutzen dugun portalkide lerdo horrek. Hori guztia ez da gertatzen kanpoko figura batek egin behar hori hartzen badu. Horrelako kasuetan administradoreari ordaindu beharreko prezioa ekonomikoa

izaten da, hilabeteroko kuota, baina udal bati buruz ari bagara ondorioak beste batzuk izaten dira, desafekzioa adibidez, baina ez nago seguru hori ondorioa ala arrazoi den.

Lau urte pasata, aurten, Tolosaldeko EAJ-k alkatetza (finkaren administrazioa) eskuratzeko aukera izango zuela iritzita, Larraulerako hautagaitza aurkezte erabaki zuen, herritarrik gabeko zerrendarekin, noski. PSE-EEK orain arteko alkate andreak gidatutako papeletan testimonialki larrauldar bat sartu zuen. Zein izan da bien arteko borrokaren emaitza? Erroldatutako boto-emaelek, udal hauteskunde arloan, ondo baloratu dutela Arana andrearen lau urteko administrazio lan profesionala. Txukuna, eraginkorra eta aseptikoa izanik, larrauldar batzuek

ideologiak existituko ez balira bezala bozkatu dute eta, ezustean, 55 botorekin garaipen itzela eman diete sozialistei. Pragmatismoa koherentziaren gainetik, ideologiaren heriotza. Horregatik, Tolosaldeko emaitzen mapa berdean irla gorri bat azaltzen da, Larraul dagokiona, PSE-EEren finka gobernatzeko modua saritzen duena. Pozik azaldu zen Eneko Andueza Bilboko agerraldian Larraul sozialistek irabazitako herrien zerrendan kokatuz.

Batzar Nagusietarako hauteskundeetan berriz, norberaren ideia politikoen arabera bozkatzeko dela onartzen badugu, emaitza oso ezberdinak azaldu ziren, Alderdi Sozialista 5 boto eskuratuta laugarren indarra izan zen, EH Bildu (63), EAJ (27) eta Elkarrekin Podemosen (6) atzetik. Non geratu dira gai-

nontzeko 50 udal boto emaile sozialisten papeletak? Ba batzuk (asko) EH Bilduren aldeko botoen kontaketa, aldundirako ezker abertzalea, udalerako sozialista binomio berezia eta bitxia osatuz. Eta hor dago Larraulgo mirariaren azalpena, nola EH Bilduren aldeko papeletak PSE-EE bezala kontatzen diren ondoko hautetsontzian, bati baino gehiagori begiak talo utziz.

Eskualde abertzalean bizi gara adierazten dute emaitzek behin eta berriz, Larraulgo anekdota salbu. Batzar Nagusietarako hauteskundeetan EH Bildu aise izan da garaile 28 herrietan, eta hori ez da marka makala. Iku-siko dugu gobernatzeko garaian zer eragina izango duen eta batez ere, uste guztien arabera, uztailetik aurrera Espainia aldetik etorriko den eskuineko haizearen indarraren norabidea. Baina usteak, askotan erdi ustel suerta daitezke, mirariak ere gertatzen dira eta.



LEYRE CARRASCO

«'Naturaren Doinuak' ohitura bilakatzea nahiko genuke»

**SHRABANI ARANZABE
ANTOLATZAILEA**

Musika eta natura uztartzen dituen 'Naturaren Doinuak' festa izango da ekainaren 11n Alkizako plazan; egitarau zabala prestatu dute aurtengoan

Leyre Carrasco Alkiza

Pandemian literatur testu motzak idazten hasi zen Shrabani Aranzabe (1999, Alkiza). Horiek naturarekin lotura zutela ohartu, eta oholtzara eramatea erabaki zuen. Horrela sortu zen *Naturaren Doinuak* emanaldia. Orain

proiektua handitzeko pausoa eman du alkizarrak, eta euskaldunon mahai inguruko eta bazkalosteko ohiturak txertatu dizkio ekainaren 11n izango den festari.

Nola eta noiz sortu zen 'Naturaren Doinuak'?

Pandemia garaian sortu zen le-

henengo proiektu txikia, Ur Mara museoa izan zena. Oso proiektu hunkigarria izan zen, basoan ospatu genuelako. Musika eta literaturaren arteko zerbait egin genuen, naturarekin harremanetan. Izan ere, *Naturaren Doinuak* Euskal Herriko tradizioarekin eta kulturarekin oso lotuta dago, eta Euskal Herria natura ere bada. Aurtun, ordea, pauso handiagoa ematea erabaki dugu eta euskaldunon mahai inguruko ohitura eta tradizioa naturarekin lotu ditugu.

Zer txertatu diozue aurtengo ediziori?

Mahai inguruan jana eta edana ez dira inoiz falta, eta gastronomia ere txertatu dugu aurtengoan. Euskaldunok bazkalostean kantuan aritzeko ohitura izaten dugunez, abesti horiekin emanaldi handi bat egingo dugu, musikari oso onekin. Oso pozik nago hori lortu izanagatik. Gainera, egun horretan T3T mendi lasterketa izango da, eta Alkiza lasterketako azken tontorra denez, lehen korrikalariekin batera hasiko dugu festa.

Alkizako Ur Mara museoko basoan ospatu zenuten iazko edizioa. Aurtun ere bertan izango al da?

Aurtun T3T lasterketa izango denez, herriko plazan egitea pentsatu dugu, modu ireki batean, ahalik eta jende gehien etorri dadin. Izan ere, Ur Mara museoko basoak edukiera mugatua du, normala den bezala, natura kontserbatu eta ondo zaintzeko.

Pandemia garaian sortu zela ekimena esan duzu.

Pandemian denbora asko izan genuen denok, eta ni literatura zati txikiak idazten hasi nintzen. Testu gehienak naturarekin lotuta zeudela konturatu nintzen, eta horrela sortu nuen *Naturaren Doinuak*. Gainera, ni Alkizan bizi naiz eta hemen naturaz inguratuta nago. Horrek ere nola baiteko eragina izan zuela kon-

turatu nintzen. Horregatik, kantu bakoitza naturaren inguruko testu batekin lotuta doa.

Aurtengo edizioari gastronomia txertatu diozuela aipatu duzu. Zer antolatu duzue?

Goizean goiz hasiko da festa dultzaineroeekin, eta gastronomia postuen irekiera ere orduan izango da. Ekitaldi nagusia arratsaldean izango da, eta hor uztartuko dira musika, dantza edota literatura, artista ugariren parte hartzearekin. Ondoren txaranga doinuak ere izango dira. Arratsaldean, gainera, jatekoa ere izango da, Goya harategikoak etorriko baitira, eta duela gutxi Tolosan ospatu den Haragi festako hanburgesa antzekoak ekarriko dituzte. Beraz, egun osoko festa izango da.

Eskaintza zabala izango duzue, beraz.

Bai. Osagai guzti hauekin jendeak ondo pasatzea nahi dugu, askotariko gauzak egongo baitira. Ez da kontzertu sinple eta serio bat izango, etxeko giro eta mahai inguruko giro bat sortu nahi dugu. Horrela, zerbait hartu edo mokadutxo bat jaten zauden bitartean, musika lasai entzuteko aukera izango duzu.

Zergatik dela berezia antolatu duzue ekimena esango zenuke?

Beti esaten da emanaldi bat ezin dela musikaririk edo dantzaririk gabe egin, eta hori guztia kontuan hartu dugu diziplinarteko emanaldi bat antolatuz. Horrela, musikariez eta dantzariez gain, literatura ere izango dugu. Gainera, aipatzekoa da oso pertsona bereziek osatuko dutela aurtun antolatu dugun emanaldia. Garrantzitsua da aipatzea, hau guztiarekin gizartearengana iritsi nahi dugula, eta horretarako, Izan Inurri elkarteak ere izango ditugu. Minbizia duten pertsonen prozesuan bidelagun izaten duten elkarteak da, eta gurekin abastera gonbidatu ditugu.

'Naturaren Doinuak' pixkana lekua hartzen doa. Datorren urtean ere ekimenari jarraipena emateko asmoa al duzue?

Bai, proiektu txiki batekin hasi zen, pandemian izan nuen ideia baten harira. Aurtun, ordea, apustua handitu dugu eta ekimena ohitura bilakatzea nahiko genuke, *Naturaren Doinuak* urtez urte egun berean mantenduz. Pil-pilean urte asko daramatzan gaia da aldaketa klimatikoarena, eta horrekiko kontzientziazioa eragiteko aitzakia ere izango da festa; ohiturak, kulturak, baita naturak dituen aldaketen ondorioak.

Nola hartu dute herritarrek ekimena?

Pozik hartuko dutela pentsatzen dut, eta ongi etorriak izango dira denak. Gainera, herritarren artean ere kolaboratzaile eta laguntzaile batzuk daude. Denek oso goxo hartu gaituzte, eta benetan beraien jarrera eskertzekoa izan da.

Nori zuzendutako emanaldia dela esango zenuke?

Etorri nahi duen edonorentzat. Horrelako saltsak gustatzen zaizkien herritar guztiak izango dira ongietorriak.

EGITARAUA

11:30. Festaren hasiera eta gastronomia postuen irekiera: Ekotalo eta garagardo artisauak (Donostiako La Viajera Craft Beer eta Tolosako Iparrar Beer). Arratsaldean. Goyako hanburgesak ere izango dira.

12:00. Jeronimo dultzaina taldea.

17:30. Naturaren doinuak emanaldia. Musika: Aitor Furundarena, Toloaldeko Ahots Gazteak (TAG), Iñaki Letamendia, Xabier Valverde, Oihana Fernandez de Larrinoa, Laida Dominguez... Dantzariak: Noa ekitaldiak (Olatz eta Nahikari). Literatura: Xabier Artola eta Maxux Aranzabe. Izan Inurri elkarteak. Jarraian. Laskotxaranga.

20:00. Festaren amaiera.

Hilberriak eta urteurrenak

ataria jarrita
Urola Kostako
eta Goierriko
Hitzetan DOAN

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

Eskelak orain merkeago!

TXIKIA (82mm X 63,5mm): 130 € • Harpidedunentzat 65€

HANDIA (124mm X 63,5mm): 180 € • Harpidedunentzat 90€

ESKERTZA (38mm X 63,5mm): 80 € • Harpidedunentzat 40€
bez barne

ESKELAK • ataria@ataria.eus • Tel.: 943-65 56 95

Astelehenetik asteazkenera 18:30ak arte hartzen ditugu • Ostegunetan 11:00k arte hartzen ditugu

30 urteko berdintasun, askatasun eta elkartasun esperientzia

Larunbatean harrera herrikoia egin zitzairen Zizurkilen El Salvadorretik etorritako ordezkariak eta astelehenean harrera instituzionala udaletxean

Jon Miranda

Hiru hamarkada bete ditu El Salvadorreko Segundo Montes komunitatearekiko elkartasun esperientziak. Zizurkildik abiatutako senidetzea bailarako hainbat herrietara zabaldu zen ondoren, eta gaur egun, kooperazio ekimenetan parte hartzen dute baita Adunak, Asteasuk eta Amasa-Villabonak ere. 1993an Zizurkilgo alkate eta gerora Euskal Fondoko lehendakari izan den Mikel Arrastoak egin zien larunbatean harrera El Salvadorretik etorri diren ordezkariak Joxe Arregi plazan. Harrera ekitaldi herrikoia izan zen.

Geovany Sanchez Jocoaitiqueko alkatea, Geovanny Diaz Meanguerako alkate ohia, Pedrina Rivera Suchitotoko alkate ohia eta Yesica Escobar Suchitotoko gazte mugimenduko erreferentea gonbidatu dituzte aurtan Senidetze egunera. Euskal Fondoko zuzendari Juanma Balerdik hitz egin zuen ekitaldian eta urte luzeotako esperientzian indarrean egon diren hiru balore azpimarratu zituen: berdintasuna, askatasuna eta elkartasuna. «Ez da oso azkarra izan behar hiru balore horien nahasketaren ondorioz sortzen den ekuazioaren emaitza zein den jakiteko: iraultza. Eraldatzeko hezi, irauli, aurrera egiteko go-goa izatea da iraultzaile izatea». Munduko beste hainbat herrialderekin elkartasun ekimenak egon badauden arren, modu horretara, El Salvador eta Aiztondoren artekoak bakarrik irauteen duela nabarmendu zuen Balerdik.

Agurra dantzatu eta opari truketaren ostean, bi herrien arteko senidetzeak iraun duen urteotan, betirako desagertu diren lagunak aipatu zituzten larunbatean ekitaldian. Azkena, Joakin Arregi Txek zizurkildarra. Hura gogoratuz eta hark hainbeste estimatzen zuen Habanera doinuaren, Senidetze egunaren inguruan Unai Mendizabal herritarrek egindako bertsoak kantatu zituzten plazan.

Larunbateko harrera herrikoia- ren ostean, astelehenean, El Salvadorreko ordezkariak harrera instituzionala egin zitzairen Zizurkilgo udaletxean. Ekitaldian Josune Arretxe zena gogoratu zuen Iker Urruzola Zizurkilgo jarduneko alkateak. 2009an Arretxek eskualdeko beste hainbat lagunekin El Salvadorrera egindako bidaiaren osatutako dietarioaren argitalpen bat prestatu eta Urruzolak, hunkituta, El Salvadorreko zein Aiztondoko udal ordezkarien artean banatu zuen. Keinua eskertu eta egungo Jocoaitiqueko alkateak ere opariak eman zituzten bueltan Aiztondoko udal ordezkariak.

instituzionala egin zitzairen Zizurkilgo udaletxean. Ekitaldian Josune Arretxe zena gogoratu zuen Iker Urruzola Zizurkilgo jarduneko alkateak. 2009an Arretxek eskualdeko beste hainbat lagunekin El Salvadorrera egindako bidaiaren osatutako dietarioaren argitalpen bat prestatu eta Urruzolak, hunkituta, El Salvadorreko zein Aiztondoko udal ordezkarien artean banatu zuen. Keinua eskertu eta egungo Jocoaitiqueko alkateak ere opariak eman zituzten bueltan Aiztondoko udal ordezkariak.

ESKER HITZAK

Larunbateko zein asteleheneko ekitaldiak baliatu zituen Escobar gazte mugimenduko aktibistak El Salvadorren egiten dituzten ekimenak azaltzeko. Lehen aldia du Euskal Herrian eta gustura agertu da bisitaldiarekin, baita Sanchez Jocoaitiqueko alkate eta FMLNko kidea ere. Senidetzearekin eskerrak ur saneamenduaren arloan egin diren lanak azpimarratu zituen Sanchezek. Diazek, Meanguerako alkate ohia, berriz, gogoratu zuen erbestetik bueltan ezerezetik abiatu behar izan zutela euren herria eraikitzen eta Euskal Herri- tik bideratutako laguntzari esker egin zirela elektrifikazio eta eraikuntza lanak. «Dena den ur edangarria izateko proiektua da urteotako kooperazioaren ikur nagusia. 1.050 familiak ur edangarria dute egitasmoari esker. Hemen- dik bideratutako laguntza eta bertako jendeak ia hiru hilabetetan jarritako eskulanarekin gauzatu ahal izan zen proiektua».

Suchitotoko alkate ohi Pedrina Riverak, berriz, Euskal Fondoaren duten kooperazio ekimen be-



Asteasu, Aduna, Zizurkil eta Amasa-Villabonako alkateak, El Salvadorreko ordezkariak, larunbatean Zizurkilen. J.M.



Asteleheneko harrera instituzionalean opariak trukatu zituzten ordezkariak. J.M.

reziaren inguruan hitz egin zuen. «Gizarte patriarkal horretan biolentzia matxistaren aurka kontzientziatzeko lana egiten ari gara eta horretarako eskualdetik bideratutako laguntza ezinbestekoa da», esan zuen Riverak. Bide batez, asteleheneko harrera instituzionalean, El Salvadorrekin senidetuta dauden Aiztondoko lau udalerrietan, Amasa-Villabonan, Adunan, Zizurkilen eta Asteasun, alkatetza lortu duten lau emakumeak zoriundu nahi izan zituen Suchitoton alkate izandakoak.

El Salvadorren egun bizi duten egoera ekonomiko, sozial eta politiko zaila gogoratu dute handik etorritako ordezkariak. Horregatik Euskal Herri- tik bideratu daitekeen elkartasuna behar beharrezkoa dela esan zuen Euskal Fondoko zuzendariak. «Politikoki animatu nahi zaituztegu badakigulako hauek ez direla garai samurrak. Gure arteko laguntasuna ospa dezagun, horrelako momentuak baliatu behar ditugu indarrak batu eta ilusioa pizteko», esan zuen Balerdik.



zozketak

Atarikideentzat **sorta bat** dugu



Atariako
Poltsa, katilua
eta kantineplora

Zozketan parte hartzeko osteguneko 11:00ak arte **943 65 56 95** edo **Ataria.eus**

Jon Miranda

Lasterbidean ekinaldia 2013an egin zuten lehen aldiz, Oiartzunen. Iaz, pandemiaren etenaren ostean, Kanpezun ospatu zuten lasterketa eta Amasa-Villabonak hartuko du lekukoa aurten. Bi lasterketa prestatu dituzte: bata luzea, 7,8 kilometrokoa; eta bestea, motza, 2,5 kilometrokoa. Iaz 600 lagun inguruk hartu zuten parte eta marka hori berdintzen saiatuko dira aurten antolatzaileak. Lasterketa luzean parte hartu nahi dutenek *Lasterbidean.eus* atarian aurrez eman dezakete izena 18 euro ordainduta, eta egunean bertan, Olaederra kiroldegian, proba hasi baino ordubete lehenago ere eskuratu dezakete dortsala 20 euroren truke. Lasterketa motzakoek, egunean bertan egin beharko dute izen ematea.

Euskal errepresaliatuen eskubideen aldeko lasterketa izango da larunbatekoa. June Gurrutxaga ekimenaren antolatzaileek adierazi duenez «positiboak» dira euskal presoek auzian orain arte eman diren pausoak, baina, bere ustez, oraindik badago bidea egiteko: «Oraindik jarraitzen dute preso gutxi batzuk Euskal Herriko urrun eta askori salbuespeneko neurriek aplikatzen zaizkie, ikusi besterik ez dago nola eman diren gradu erregresioak. Gutxi falta da, oraindik ez da bukatu eta gogorra izango da hemendik aurrerakoa ere. Horregatik aktibo jarraitu behar dugu bidea laster egiteko. Lasterbidea sortzen ari gara, laster, etxerako bidean izan ditzagun».

Lasterketan parte hartzera datozenek zerbitzu ugari izango dituzte Amasa-Villabonan. Bezperatik etorri nahi dutenentzako, autokarabanaz edo furgonetaz gerturatuko direnentzat, gune bat atonduko dute kiroldegi atzealdean. Gainera, ostiral gauean, Sahrijai elkartearekin elkarlanean kontzertuak antolatu dituzte Aljibean. Kurtz eta Etxekalte taldeak ariko dira.



Gurrutxaga eta Etxeberria antolatzaileak astelehenean larunbateko lasterketa iragartzeko kartelaren aldamenean. J.M.

Euskal presoek eskubideen alde laster egitera deitu dute

Lasterbidean euskal errepresaliatuen aldeko lasterketa egingo dute larunbatean Amasa-Villabonan; egun osoko egitaraua prestatzeko lanean ari dira eskualdeko herritarrak

Kamiseta gorriarekin larunbatean 11:00etan aterako dira lasterkariak herrian zehar prestatutako zirkuituan zehar. Ander Etxeberria antolatzaileak esan duenez ibilbidea ez da «oso gogorra» izango. Amasa aldera egingo dute korrikalariek Aranerrekan barrena. Ibilbide motza umeengan pentsatuta prestatu dute eta herrian zehar egingo dute itzulia. «Lehenengo hiru emakumezko eta hiru gizonezkoentzat presoek eginda-

ko eskulanez gain beste hainbat sari izango dira eta opariak banatuko dira parte hartzaile guztien artean», esan du Etxeberriak. Lasterkariak dutxa eta kontsigna zerbitzua izango dute Olaederra kiroldegian.

KIROLA ETA JAIA UZTARTUZ

Behin lasterketa amaituta, bazkaria Zubimusu ikastolaren Txermingo eskolaren aterpean egingo dute. 600 lagunentzako tokia

daukate prestatuta. Lasterketan izena ematen dutenek gehienez beste hiru lagunentzat hartu dezakete tokia, eta soilik bazkarira joan nahi dutenek, txartelak Villabonako Iratzarren eskuratu ahal izango dute egunotan. «Aukeran beganoentzat menua ere izango da», adierazi du Etxeberriak. Bazkaria prestatzen herritarrek ariko dira larunbatean, baina baita egun osoko ekitaldiak antolatzen ere. «Herriko eta inguruko

LASTARBIDEAN 2023

Ekainak 2, ostirala

22:00. Kontzertuak Aljibean, Sahrijai elkartearen eskutik: Etxekalte eta Kurtz. Sarrerak aurretik 5 euro eta bertan 8 euro.

Ekainak 3, larunbata

09:00. Dortsal banaketa kiroldegian.
10:00. Pepoberoketa plazan.
11:00. Lasterketa luzea plazan.
12:15. Lasterketa motza plazan.
13:00. Sari banaketa plazan.
13:30. Ekitaldia.
14:30. Bazkaria Txermingo ikastola-ko aterpean.
Ondoren. Konbikarparen irekiera.
16:00. Haurren txokoa ikastolan.
17:30. Distopia elektrotxaranga.
17:30. Pilota partidak Bearzana pilotalekuan..
20:30. Kontzertuak Errebote plazan: XSakara, McOnak eta DJ Bull.

200 lagun ariko gara lanean. Bazkaria prestatzen, zerbitzatzen, lasterketako bidegurutzeak kontrolatzen edota gero gaueko txosnan txandak egiten. Jende asko behar da lanerako», esan du Gurrutxagak.

Iazko ediziotik larunbatera aldatu da Lasterbidean ekimena. Beraz, kirola egiteaz gain, festa giroan ere egin ahal izango da euskal presoek eskubideen aldeko aldarria. Bazkalostean, konbinatuak hartzeko karpa zabalduko dute Txerminen eta Distopia elektrotxarangarekin batera, plazarako bidea egingo dute parte hartzaileek. Bearzana frontoian pilota partidak izango dira arratsaldean eta 20:30ean kontzertuak hasiko dira plazan atondutako agertokian. XSakara, McOnak eta DJ Bull ariko dira. «Egitarau zabala izango da, eta kirola eta jaia uztartuz, euskal preso politikoek egoera kontuan hartu eta haiei aplikatzen zaizkien salbuespen neurriekin amaitzeko bultzadaxoa emateko balioko du egunak», esan dute antolatzaileek.



Ez baduzu hanka sartu nahi, sartu zure iragarkia IragarkiLaburrak.eus atarian



iragarki laburrak .eus

Hemen eta online

Unai Ugartemendia Tolosa

Denboraldia amaitu eta atseden hartzen ari da Imanol Rojo (Tolosa, 1990) iraupen eskiatzaile tolosarra. Hiru Olinpiar Joko jokatuak kirolariak, eskiatzen jarraitu nahi du hurrengo urtean ere. Oraindik ere amets batzuk bete nahi ditu bere kirol ibilbidean.

Denboraldia amaitu zenuela jada bi hilabete igaro dira. Nola daramazu atsedenaldia?

Gustura nago. Denboraldia ez da batere erraza izan, eta, une askotan ezinean ere ibili naiz. Fisiko-ki ez naiz batere ondo sentitu, eta horrelakoetan denboraldia oso luze egiten da. Urteko helburu handienetako batean, jada, lehen egunean arazo batekin hasi nintzen, eta, pentsa, zortzi eguneko lasterketa bat zen! Beherakoarekin hasi nintzen, eta lasterketak iraun zituen zortzi egunetan gaizki ibili nintzen. Atsedena ondo etorriko zait berriro ere eskiak gogotsuago hartzeko.

Nola kudeatu zenuen egoera hura?

Oso ondo prestatu genuen lasterketa hura. Hasi aurreko egunetan jada oso gaizki sentitzen hasi nintzen. Pentsatzen nuen egunak aurrera joan ahala, desgertzen joango zela birusa, baina, ez zen horrela izan. Ehuneko ehunean egonda zaila izaten da sailkapen on bat lortzea, beraz, pentsa gaizki egonda. Ahal nuen moduan bukatu nuen lasterketa, baina ez nik nahiko nukeen bezala.

Asebete zaitu aurtengo denboraldiak?

Ez, batere. Iaz galdetu zidaten ea beste lau urterako indarra ba-neukan, eta, nik, argi esan nien urtetik urtera joango nintzela. Urte asko daramatzat kirol honetan, eta oso nekagarria da, bidaia asko, lasterketa asko... Beste urte bat probatu nahi nuen, eta probatu dut, baina nik uste baino arazo gehiago izan ditut. Oso zapore gazi-gozoa utzi dit denboraldiak, eta arantza txiki bat ere gelditu zait barrenean. Ez dut argi ikusi aurten, oraindik ere gehiago hobetzeko aukerarik badudan etorkizunean.

Oraindik ere ez duzu argi datorren urtean jarraituko duzun edo ez?

Ez daukat garbi. Nire asmoa beste urte bat jarraitzea da, baina, federazioarekin hitz egin beharra daukat lehenik. Datorren urtean zein baldintza izango ditugun ikusi beharra daukat erabaki bat hartu baino lehen.

Iaz, zure hirugarren Olinpiar Jokoak jokatu zenituen Peki-

«Aurtengo denboraldiak arantza txiki bat utzi dit»



IMANOL ROJO IRAUPEN ESKIATZAILEA

Azken denboraldiak zapore gazi-gozoa utzi dion arren, beste urte bat jarraitzeko asmoa du; lasterka ere ari da, eta T2T proban lehen postuetan amaitzea espero du

nen. Nork esan behar zizun honetan hasi zinenen.

Bai. Inoiz ez nuen pentsatuko Tolosan hasita, iritsi naizen tokira iritsiko nintzenik. Amets bat baino askoz ere gehiago izan da hiru jokoetan parte hartzea. Az-

kenekoetan gainera, lehenengo hogeietan sartzeko aukerekin ibili nintzen, eta izugarrizko poza eman zidan hura lortzeak. Urte hauetan guztietan izugarri gozatu dut kirol honetan.

Lehen Olinpiar jokoak oso be-

reziak izaten omen dira kirolari batentzat. Zuk nola bizi izan zenituen 2014ko Sotxikoak (Errusia)?

Laino batean bezala nengoen. Hegan banango bezala sentitzen nintzen. Gaur egun munduko eskiatzaile onenekin lehiatzen dut, eta, orain oso normaltzat hartzen dut egoera, baina, lehen haietan dena berria zen niretzat. Niretzat idoloak zirenekin lehiatzera nindoan, eta egun guztia haiei begira pasa nuen. 23 urte nituen orduan, eta izugarrizko esperientzia izan zen. Ez nuen batere presiorik emaitzen aldetik, inork ez zuelako ezer espero nitaz. Askok gozatu nuen. Jokatu-tako hiru jokoetatik haiek izan ziren onenak.

2018an Pyeongchangen (Hego Korea) izan zinen. Nola oroitzen dituzu?

Emaitza aldetik nigan aurreikuspen handiak jarrita zeuden alde guztietatik, bai federazioaren aldetik, bai babesleen aldetik, eta baita nire aldetik ere. Baina ez nituen bete, eta izugarrizko kolpea izan zen niretzat. Azkenean, lau urtetako lana hiru egunetan jokatzen da, eta dena oker ateratzen da. Ez nuen batere gozatu joko haietan.

Emaitza hura eta gero, 2019an dena aldatzea erabakizenuen. Dena bertan behera uzte-rik, inoizko denboraldi onena egitera pasa zinen.

Bai, gauzak aldatu behar nituela konturatu nintzen. Andorrako selekzioan zebilen Irineu Estevekin hasi nintzen entrenatzen. Bertako selekzioaren laguntza izan nuen, eta Estevekin entrenatzeak asko lagundu ninduen. Oso talde bikaina dute, entrenatzaile onak, fisio onak, eta eskiak prestatzen dituztenak ere profesional bikainak dira. Berriro ere entrenatzeko gogoak errekuperatu nuen. Motibazioz gainezka ibili nintzen urte hartan.

Pandemiaren ondorengo urtea zure kirol ibilbideko urterik onena izan zela esan dezakegu?

Baietz esango nuke. Lehen hogeietan sartu nintzen Munduko Kopako proban, eta Europako Kopako lehen proba ere irabazi nuen. Lasterketa hura izugarria izan zen! Lasterketan zehar, ez nuen sinisten lehen postuan

nindoanik! Erreferentzia guztiak onak izan ziren, eta irabazteko aukera izan nuen.

Kirol gutxituetan, Olinpiar Jokoak izaten dira askoren helburu. Zuen kirolean ere antzekoa al da?

Guk, zortez, bi urtetik behin mundialak jokatzen ditugu behintzat. Halere, egia da, hiru urtetan dena ematen dudala, eta Olinpiar Jokoen ondorengoan txakalaldi moduko bat izaten

«Jokatutako hiru Olinpiar Jokoetatik Sotxikoekin gelditzen naiz»

dudala. Gorputzak ere badaki zeharo hustu dela hiru urte horietan, eta, horregatik iazko jokoak amaitu ostean oso atseden luzea hartu nuen.

Udara begira, azken hilabetean korrika ere ikusi zaitugu. Kirolez aldatzea ondo etortzen da deskonektatzeko?

Bai. Arazo asko izan ditut aurtengo denboraldian Munduko Kopan, eta, azkenerako denboraldia amaitzeko desiran nengoen. Eskiak albo batera uzteko gogo, eta deskonektatzeko beharra neukan. Denboraldia amaituta, beste modu batean eskiatzen dugu, baina, aurten, ez dugu halakorik egin. Gainera, denboraldia inoiz baino lehenago amaitu dugu, eta horregatik hasi naiz lehenago lasterketak

«Nire fisikoa neurtu nahi nuen, eta sorpresa handia izan da lasterketetan nola nabilen ikustea»

egiten. Oso gogotsu nengoen korrika hasteko.

Iaz lasterketa pare bat jokatu zenituen korrika. Aurten ere asmo berdina daukazu?

Eskiko denboraldian arazo batzuk izan ditudanez, aurten ikusi egin nahi nuen ea korrika ere arazo horiek jarraitzen zuten. Nire fisikoa neurtu nahi nuen, eta esan dezaket sorpresa handia izan dela nola nabilen ikustea. Biriketan izandako arazoek ez zidaten arnasa ondo hartzen uzten, eta, korrika, aldiz, kilometroko lasterketan hamar segundo azkarrago ibiltzen ari naiz.

T2T lasterketan (24 kilometro, +1.600 metro) ere izango omen zara.

Bai, bertan parte hartuko dut. Gogotsu nago lasterketarako, eta lehen postuetan ibili naitekeela iruditzen zait.





Bi ibilbide Abraham Olano zikloturista martxan parte hartzeko

Igande honetan egingo da, eta irteera zein helmuga Tolosako Usabal kiroldegi ondoan izango du; ibilbide motzak 90 kilometro inguru izango ditu, eta luzeak 133

Imanol Garcia Landa Tolosa

Oriako Txirrindulari Eskolak VIII. Abraham Olano Martxa - 11 Tontor zikloturista martxa antolatu du igande honetarako. Bi ibilbide izango ditu martxak: luzeak 133 kilometro inguru ditu eta motzak 90 kilometro inguru. Parte hartzaile guztiek ibilbide motza egingo dute, eta luzea egitera animatzen direnek ibilbidea osatu ahalko dute.

Tolosako Usabal kiroldegiaren parean hasiko da martxa, 08:30ean. Irura, Villabona eta Asteasu igaro ondoren Andazarrate mendatea igoko dute. Ondoren, Aia, Zarautz eta Getaria pasa ondoren, Garate mendatea igoko dute eta gero Aizarnan anoa puntua izango dute. Etumeta gaina igotzea egokituko zaie jarraian, eta Errezilera jaitsi ondoren Bidaniara igoko dira.

Albizturtik igaro eta gero Tolosara iritsiko dira, irteera puntutik pasatzeko. Ibilbide motza egiten dutenek hor bukatuko dute bere martxa, eta luzea egiten ari direnek aurrera jarraituko dute, Txarama aldera joanez. Ondoren, Altzora igoko dira, eta hortik Alegiara joango dira, gero Orendainera igotzeko. Abaltzisketatik eta Amezketatik pasa ondoren, berriro Altzora igoko dira, eta behera jaisterakoan, Lizartza aldera joko dute. Hortik Gaztelu aldera igoko dira aldapa piko baten bitartez, eta handik Leaburu aldera jaitsi eta Tolosara joango dira, Usabalgo helmugara iristeko.

Aitor Aiertza Oriako Txirrindulari Eskolako lehendakariak azaldu duenez, «ibilbide motzaren itzuli hori asko gustatzen zaigu. Baditu kilometro batzuk eta bere gogortasuna ere badu; he-

mengo zikloturisten artean hain ezaguna den Larraizko buelta baino gogorragoa da. Itsaso aldera joateko aukera ematen dizu eta oso polita da».

Izena eman nahi duenak *Kirolprobak.com* webgunean eman dezake, eta larunbata da horretarako azken eguna. Azken aste honetan federatuta daudenak 30 euro ordainduko dute, eta federatu gabe daudenak hamar euro gehiago. «Jasotzen den dirua, martxaren gastuei aurre egiteaz gain, Oriako Txirrindulari Eskolaren jardunari laguntzeko izaten da», zehaztu du Aiertzak. «Horregatik, zikloturistei animatzen diegu parte hartzera, eskualdeko txirrindulari gazteei bultzada bat ematen laguntzen dutelako». Abraham Olano Oriako Txirrindulari Eskolako lehendakariordea da eta bera ere parte hartzekoa da igandeko martxan.

Bedaio eta inguruak ezagutzeko



Iazko Bedaioko Mendi Martxaren une bat. LEYRE CARRASCO

Erredakzioa Tolosa

Bedaioko Mendi Martxaren hamaseigarren edizioa egingo da igande honetan. Aurreko urteetan bezala, parte hartzaileek bi ibilbide izango dituzte aukeran. Lehenengoak, luzeenak, 23 bat kilometroko distantzia hartzen du, Artubi mendiaren gailurrera iristen da (1.262 metro) eta guztira 1.800 metroko desnibel positiboa du. Ibilbideak mendiko eremuak, basoa eta mendi-pistak uztartzen ditu. Bigarren ibilbidea laburragoa da, 16 kilometro inguruko distantziarekin, mendian ibiltzen ohituta dauden zortzi urtetik gorako haurrak di-

tuzten familientzat diseinatua, betiere heldu baten begiradapean.

Igandean bertan eman daiteke izena ekitaldian, baina antolatzailerekin eskertzen dute aurrez izena ematea prozesua arintzeko eta aurreikuspenak egiteko. Izena emateko, nahikoa da *mendi-martxa@bedaio.com* helbidera mezu elektroniko bat bidaltzea, parte hartzaileen izen-abizenak eta ibilbide luzea edo laburra egingo den adieraziz. Izena ematearen kostua 10 eurokoa da eta 14 urtetik beherakoak doan dute. Bi ibilbideek abiapuntua eta helmuga Bedaioko frontoian izango dute.

Ibarrako I. Mendi Bizikleta Festa antolatu dute

I. Garcia Landa Ibarra

Bidetxur mendi elkartek Ibarrako I. Mendi Bizikleta Festa antolatu du larunbat honetarako. «Bidetxurren atal ezberdinak ditugu, eta horien artean mendi bizikletarena dugu», esan du Iban Amondarain elkarteko kideak. «Ikusten genuen Ibarran bada goela afizioa, zerbait ezberdina egiteko aukera ikusten genuen, eta denon artean osatu dugu egitaraua, eta uste dut festa polita antolatu dugula. Orain jendearen erantzuna nolakoa den ikusi beharko da».

Egun osoko egitaraua antolatu dute, eta Ibarrako San Bartolome plaza izango da festaren erdigunea. Goizean bizikleta martxak egingo dituzte, eta helduentzat

zein gaztetxoentzat prestatu dituzte. 09:30ean helduen bi martxak abiatuko dira, horietako bat mendi bizikletentzat eta bestea mendi bizikleta elektrikoentzat. Hiru orduko martxak izango dira. Gaztetxoena 10:30ean abiatuko da, bi ordu ingurukoa, eta gutxienez DBHko ikaslea izatea eskatuko da. Martxetan parte hartzeko ez da aurretik izena eman behar, garaiz bertan izatea besterik ez dute eskatu antolakuntzakoek.

Bazkaria 14:00etan izango da, eta barrikotearekin izango da, hau da, bakoitzak bere bazkaria eramango du eta antolakuntzak sagardo kupela jarriko du. Ondoren, 16:00etatik aurrera ginkanak eta tailerrak egingo dira, eta trial erakustaldia Irene Caminos

eta bere ikasleen eskutik. «Antolakuntzatik oso eskertuta gaude Irene Caminosek erakutsi duen prestutasunagatik; lehiaketa garaian dabil eta asteburu hau barrikatu zuen libre, eta gure eskariari baiezkoa eman dio», esan du Amondarainek. Tailerretan bizikletarekin lotutako kontuak erakutsiko dituzte, eta jendeak dituen zalantzei erantzuten saiatuko dira.

Beste egitasmo bat ere antolatu dute Bidetxur elkartekoek, bigarren eskuko bizikleta azoka egingo baitute. 10:00etatik 14:00etara bitarte materiala jaso eta sailkatu egingo dute, eta salmenta 16:00etatik 19:00etara izango da. Bizikletarekin zerikusia duen material oro eraman ahalko da salgai jartzeko.

Unai Zubeldia, Euskadiko txapeldun

Erredakzioa Ibarra

Sariak lortzen jarraitzen du Laboral Kutxako Unai Zubeldia txirrindulari ibartarrak. Larunbatean jokoan izan zen Beasaingo Loinatz Proba, Euskaldun Txapelketarako baliagarria, eta bertan ere erabaki zen Euskadiko Txapelketa 23 urte azpikoan zein elite mailan. Zubeldiak bigarren egin zuen helmugan, eta Euskadiko txapeldun bihurtu zen 23 urtez azpiko mailan.

Loinatz Probaren irabazlea Caja Ruraleko Samuel Fernan-

dez izan zen. Ihes eginda iritsi zen, baina oso tarte txikia mantenduz atzetik zuen tropeltxoarekin. Azkenean ezin izan zuten harrapatu eta bi segundoko abantailarekin iritsi zen helmugara. Tropeltxoaren esprintean Unai Zubeldiak indar erakustaldia eman eta bigarren amaitu zuen. Hirugarren Ander Ganza bal bere taldekidea helmugaratu zen, eta elite mailako Euskadiko txapeldun bilakatu zen. Zubeldia hirugarren doa Euskaldun Txapelketaren sailkapenean, 83 punturekin.



ASTEAZKENA, 2023KO MAIATZAK 31
Argitaratzailea:
Tolosaldeko Komunikazio Taldea SM
Lege Gordailua: SS-1323-2013
Koordinatzailea: Rebeca Calvo Gonzalez
Kudeatzailea: Iban Urdapilleta Alkizaletxe
Egoitza: San Esteban, 20, Tolosa.
Telefona: 943 65 56 95.
E-posta: ataria@ataria.eus
Publizitatea: 661678 818. publi@ataria.eus

Tolosa: 687 410 082. tolosa@ataria.eus
Villabona-Aiztondo: 687 410 022.
villabona-aiztondo@ataria.eus
Anoetalea: 687 410 022.
anoetalea@ataria.eus
Ibarralde: 687 410 118. ibarralde@ataria.eus
Alegialdea: 687 410 034.
alegialdea@ataria.eus
Kirolak: 673 06 11 32. kirolak@ataria.eus
Bezero arreta zerbitzua: **943 30 43 46**



Ataria.eus

ATARIA IRRATIA
107.6 FM

Tolosaldeko Ataria diruz laguntzen duten erakundeak:
Udalak: Abaltzisketa, Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketeta, Anoeta, Asteasu, Balarain,
Belantza, Berastegi, Berrobi, Bidania-Golatz, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta,
Irura, Larraul, Leaburu-Txarama, Lizartza, Orendain, Oresa, Tolosa, Amasa-Villabona eta Zizurkil

Tolosaldeko Komunikazio Taldea SMko kideak:



ASTEAZKENA 31

AGENDA

Deialdiak

Asteasu. Laguntza sarea antolatze-ko bilera, ikus-entzunezko aretoan, 18:30ean.
Tolosa. Tolosatzen: Zaintza etxean hitzaldia, kultur etxean, 18:30ean.

Zinema

Tolosa. Cimasub Nazioarteko Itsaspeko Zinema Zikloa, Topic-en, 19:00etan.

28 KANALA

15:00. Ur eta lur.
15:30. Tolosaldea Gertutik.
17:00. Danbaka.
21:30. Tolosaldea Gertutik.
22:00. Pintxo Pote.

ATARIA IRRATIA

09:00. Eguraldia. Iker Ibarluzearen eguraldi iragarpena.
10:00. Hitzez Hitz. Galtzaundiren tar-
tea.
12:30. Pasahitza. Eskualdeko albiste-
en errepasoa.
18:00. Desafioa. Herri kirolak Jose
Angel Sarasolarekin.
20:00. (H)ari naizela. Bertsolaritza,
Imanol Artola Felix-ekin.

FARMAZIAK

Gaur

IBARRA. Egunekoa. Edurne Bengo-
etxea Aiestaran. Kale Nagusia, 7.
943 67 06 48.

TOLOSA. Gauekoa. Leire Andres
Morant. Zabalarretalorategiak, 1.
943 67 38 49.

EGURALDIA

IKER IBARLUZEA

Gaur. Antzeko giroa izango dugu. Goizean ho-
dei baxu batzuk ostatee-
kin tartekatuko dira eta giro atse-
gina izango da. Arratsaldean ze-
har berriz ere bero-hodeiak
garatuko dira, baina ekaitzetarako
joera txikia izango denez, ordurik
eta lekurik gehienetan ateri eu-
tsiko dio. Goizean haize aldakorra
izango da, arratsaldean iparralde-
koa nagusituko delarik.
Tenperaturan aldaketarik ez da
izango, 22-24 graduan joko due-
larik goia, egunaren erdiko ordue-
tan.

Bihar. Giro nahasiagoa
izango dugu. Goizean erdi
eta goi-mailako hodeiak
ugariak izango dira, baina zaparra-
da isolaturen bat salbu, ateri
egongo da. Arratsaldean bero-
hodeiak ugariak izango dira eta
tarteka zaparradak utziko dituzte.
Ekaitzak jo eta zaparrada handi-
ren bat botatzea ere ezin da baz-
tertu. Ekialdeko haizeak joko du
eta tenperatura antzeko manten-
duko da, 22-24 graduan joko due-
larik goia.

TOLOSALDEKO ATARIAK ez du bere gain
hartzien egunkarian adierazitako esa-
nen eta iritzien erantzukizunik.

Araxesko itzulian berrehundik gora ibiltari

Ibilbide luzean 105 parte hartzaile izan ziren, eta motzean 112; aurrerantzean ere proba egiteko asmoa dute antolatzaileek



Larunbatean egin zuten Araxesko Itzuliko une bat. IÑIGO CABIECES

Imanol Garcia Landa

XIV. Araxesko Itzulia egin zuten
larunbatean, eta 200 parte har-
tzaile baino gehiago izan zituen.
Hain zuzen, bi ibilbide antolatu
zituzten Amaroizko Mendi Elkar-
tekoek, eta luzean 105 parte har-
tzaile izan ziren eta motzerako
112 mendizale animatu ziren.

Antolatzaileak gustura daude
mendi martxak eman zuenare-
kin. «Parte hartzaileek zoriondu
egin gintuzten, ibilbide politak
zirela eta dena ondo antolatuta
zegoela esanez». Era berean, an-
tolatzaileek eskerrak eman diz-
kiete boluntario guztiei eginda-
ko lanarengatik, eta baita babes-
le eta laguntzaileei ere.

Aurten Tolosako Amaroiz au-
zoaren 50. urteurrena ospatzen
ari dira, eta hori dela eta, Ama-
rozko Mendi Elkarteko kideek
mendi martxa berreskuratzea
pentsatu zuten. Azken Araxesko
Itzulia 2017an egin zen. Hemen-
dik aurrera ere antolatzen jarrai-
tzeko asmoa dute mendi elkar-
tekoek.

ZORION AGURRAK

Argazkia bi egun lehenago ekarri mesedez

943 65 56 95
ataria@ataria.eus
San Esteban 20
Tolosa

Urtebetzeak, urrezko ezteiak,
ezkontzak, jaioberriak...

www.ataria.eus · 107.6 fm ·

sulumobel
1.990€* -tik hasita
egokitu zure
sukaldea
zure bizitzara

Adinekoentzat **segurtasuna** eta
irigarritasuna ematen dituen soluzioa.
*Basic-pack eguneraketa.
Informazio gehiago:
www.sulumobel.com



altzari egokituen soluzio integralak